

Zinematografoa edo argazkia zine bilakatu zenean

Igor Urresti Osa

Elhuyar

"Asmakizun honek ez du etorkizunik. Izan ere, nor egon daiteke egunero kalean ikus ditzakeen irudiak pantaila batean ikustearren ordaintzeko prest?" Horrela pentsatzen zuten Lumière anaiek 1895eko martxoaren 22an Parisko Industria Biziberritzeko Elkartean emandako hitzaldian zinematografoa aurkeztu zutenean. Eguneroko bizitzako irudiz osatutako lau filme labur aurkeztu zituzten, eta beraien zinematografoa hainbat asmakizunen artean beste bat baino ez zen izan.



Muybridge-k 2/1.000 segundoko obturadore berezia garatu zuen eta 1877an, 12 kamera erabiliz, zaldiaren mugimendua argazkitan jasotzea lortu zuen.

BAINA EZ ZEN HORRELA GERTATU handik bederlatzi hilabetera Parisko Le Grand Café-n jendaurreko lehenengo aurkezpena burutu zutenean. Ikusleak oihuka hasten ziren tren "La Ciotat"-eko geltokira iristen ikusten zutenean. Hura zen inpresioa, tren erraldoia pantailan aurrez aurre gainera zetorkiela ikustean!

Handik aurrerako arrakastek ezagutzen ditugu... soinua gehitzea, zinemaskopea, dolby, THX, etab. Baina nola hasi zen istorio guztia?

Apustu batek eman zion hasiera zinemaren historiari. Leland Stanford Kaliforniako gobernadore ohi aberatsak

(izen bereko unibertsitatearen sortzaileak) apustu bat egin zuen. Stanford zaldizalea zen eta, bere ustez, badago une bat zeinean trostan doan zaldia lurrik ukitzen ez duen. Eztabaida argitzeko, Eadweard Muybridge kontratatu eta saiakuntzak egiteko bere *Occident* zaldi kutuna eskaini zuen. Muybridgek zaldiaren ibilbidean, zeharka 12 kamera jarri zituen eta bestaldean beste hainbat pantaila zuri. Kamera eta pantailaren artean hari finak jarri zituen, eta zaldia bertatik pasatzean hariak tira egiten ziren eta kamera bakoitzak argazki bat ateratzen zuen. Horrela baieztatu zuten badagoela une bat zeinean zaldia lurra ukitzen ez duen.

Baina Muybridge ez zen hor gelditu. 1878ko urrian, egindako argazkiak *Scientific American* aldizkarian argitaratu zituen, eta 1879an argazkiak disko estroboskopiko batean muntatu eta 'linterna magiko' batekin (Kirscher-ek asmatua) argiztatu zituen. Irudiek erretinan duten iraunkortasunaren eraginez, denen harridurarako, zaldia mugimenduan ikus zitekeen. Bere lana izan zen zinearen oinarria, mugimendu ari-ri argazki-segidan deskonposatzen zen lehen aldia baitzen.

Muybridgek ehunka ikerketa egin zituen eta Europan hitzaldiak ematen hasi zen. Horrela, E.J. Marey frantziarrak argazkiak jarraian ateratzeko tresna asmatu zuen, eta argazki-pistola izena eman zion.

Garai hartan, Thomas Alva Edison-ek Muybridgeren hitzaldi bat entzun zuen, baita mugimendua duen argazkigintzak etorkizuna izan zezakeela pentsatu ere. 1888an grabazio fonografikoak egiteko erabiltzen ziren argizarizko zilindroen antzekoetan argazkiak grabatzen saiatu zen. W. Dickson bere lankideak orde, beste pauso garrantzitsu bat eman zuen George Eastman-ek sortutako zeluloidezko pelikulak erabiltzen hasi zenean. Zeluloidea gogorra zen baina malgua, eta biribilki luzeetan gorde



Louis eta Auguste Lumière anaiak.



ARTXIBOKOA

Jendaurrean emandako lehen filma: *La sortie des ouvriers de l'usine Lumière* (1895) edo *Lumière familiaren fabrikatik langileak ateratzen*. Minutu bateko iraupenera ere heltzen ez zen film horretan, kamera finko batek hartuta, bazkalorduan langileak etxerako bidean agertzen ziren.

zitekeen. Beraiek asmatu zuten 35 mm-ko pelikula, eta pelikulak aurrera botatzeko dituzten hortzen sistema ere bai (gaur egun erabiltzen jarraitzen duguna). Abantaila handia izan zen aurrekoa, izan ere, argazki asko behar baitziren mugimendua lortzeko. Pelikulak

“zeluloidea gogorra zen baina malgua, eta biribilki luzeetan gorde zitekeen”

egiteko tramankuluari kinetografo izena eman zioten eta 15 segundoko hainbat pelikula egin zituzten. Halere, mugimendua zuten argazkiek arrakasta txikia izango zutela pentsatuz, argazkiak ikusteko sortutako tresna, kinetoscopia, ez zen egokia irudiak jendaurrean erakusteko; hots, irudiak ez ziren pantailan proiektatzen. 1894ko apirilean plazaratu zuten kinetoscopia pertsona bakarrarentzako lekua zuen.

Edisonek hain etorkizun gutxi ikusten zion kinetoskopiari, ezen Europarako egile eskubideak ere ez zituela eskatu. Eta Edison-en makinan oinarrituz, Louis eta Auguste Lumière anaiek aldi berean eramangarria zen kamera eta proiektorea barne zituen tresna garatu zuten: zinematografoa.

Zinematografoak Edison eta Dickson-ek garatutako banda malgua erabiltzen zuen, eta Lumière anaien patenteak dioenez, "inpresio kronofotografikoak egin eta erakusteko tresna" zen. Orain dela 106 urte, 1985eko martxoaren 22an, aurkeztu zuten lehen aldiz.

1895eko abenduaren 28an Parisko Kaputxinoen bulebarreko Le Grand Café-aren sotoan, 10 film labur eman zituzten, eta denen artean ere iraupena ez zen 20 minutura heltzen. Eguneroko irudiz osaturik zeuden: Lumière familiaren fabrikatik langileak ateratzen, edo aurretik aipatutako La Ciotat-eko tren-geltokira trenea heltzen, etab. Sarrera ordainaraziz jendaurrean proiektatutako lehen film laburrak izan ziren eta gaur eguneko zinea orduan hasi zela esan daiteke. □